Balizko erroten erresuma

Koldo Izagirre

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1989 Koldo Izagirre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1989ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Nire bekatuak ez du mea culparik ordea

Ez ni utzi euskararekin buruz buru
Lagunok
Ez nazazue utz bakarrean euskararekin
Erdaldun nazazue
Lagunok
Egin dezagun bekatu itsusi bat
Ahapetik bederen
Inoizka bederen
Egin dezagun bekatu eder bat
Erdaldun nazazue piska bat
Mesedez
Nik ez dut euskal herria euskararen gain finkatu nahi
Ez nuke nahi hitzezko zutabez jasotako aberrian bizi
Lagunok
Oker xamar idatzi ohi dut beti
Eta bertsotan
Poto eginiko bertsoa zait eder

Bai badakit hitzak haizeak daramatzala
Eta euskara biluzik dagoela
Hezur hutsetan ia
Baina nire bekatuak ez du mea culparik

Ez nazazue utz euskararekin bakarrean
Ez nuke gure mintzoa ukatu nahi
Euskaraz etsitzen jarraitu ahal izan baizik
Ni ere ez noa haize-alde
Ez niri eskatu lastrerik
Euskaraz mintzatu behar baldin badugu
Mintza gaitezen baina
Lagunok
Mintza gaitezen bizitzeko
Eta ez mintzoa bizitzeko

Bai badakit ezagutzen dut ikasi nuen
Sasian usteltzen dagoen
Mihinik gabeko ezkilaren ipuina
Hizkuntza herdoildu hau
Horretxegatik hain zuzen

Ez nazazuela utz euskararekin buruz buru
Erdaldun nazazue

Ahapetik bederen
Inoizka bederen
Erdaldun nazazue piska bat mesedez

Eguzki honek eskas duen ordua
Nire banderak eskas duen izarra
Zure ezpainek eskas duten hitza

Eta ate joka zatozkidate
Mintzoaren ezpata eskuan

— Alde egon ala alde egin...

Eta nire bekatuak
Lagunok
Ez du mea culparik

Bai badakit arrisku bizian gaudela
Badakit bizi-arriskuan gaudela
Eta horretxegatik hain zuzen
Ezpatek odoldu egin behar dutelakoz
Erdaldun nazazue
Lagunok
Egin dezagun bekatu itsusi bat

Ahapetik bederen

Inoizka bederen

Egin dezagun bekatu eder bat

Erdaldun nazazue piska bat mesedez

Erdaren San Bartolome Gauera gonbidatu baino lehen

ATEAK ITXIAN EGINDAKO HITZAURREA

Nire bekatuak ez du mea culparik ordea

Ez ni utzi euskararekin buruz buru
Lagunok
Ez nazazue utz bakarrean euskararekin
Erdaldun nazazue
Lagunok
Egin dezagun bekatu itsusi bat
Ahapetik bederen
Inoizka bederen
Egin dezagun bekatu eder bat
Erdaldun nazazue piska bat
Mesedez
Nik ez dut euskal herria euskararen gain finkatu nahi
Ez nuke nahi hitzezko zutabez jasotako aberrian bizi
Lagunok
Oker xamar idatzi ohi dut beti
Eta bertsotan
Poto eginiko bertsoa zait eder

Bai badakit hitzak haizeak daramatzala
Eta euskara biluzik dagoela
Hezur hutsetan ia
Baina nire bekatuak ez du mea culparik

Ez nazazue utz euskararekin bakarrean
Ez nuke gure mintzoa ukatu nahi
Euskaraz etsitzen jarraitu ahal izan baizik
Ni ere ez noa haize-alde
Ez niri eskatu lastrerik
Euskaraz mintzatu behar baldin badugu
Mintza gaitezen baina
Lagunok
Mintza gaitezen bizitzeko
Eta ez mintzoa bizitzeko

Bai badakit ezagutzen dut ikasi nuen
Sasian usteltzen dagoen
Mihinik gabeko ezkilaren ipuina
Hizkuntza herdoildu hau
Horretxegatik hain zuzen

Ez nazazuela utz euskararekin buruz buru
Erdaldun nazazue

Ahapetik bederen
Inoizka bederen
Erdaldun nazazue piska bat mesedez

Eguzki honek eskas duen ordua
Nire banderak eskas duen izarra
Zure ezpainek eskas duten hitza

Eta ate joka zatozkidate
Mintzoaren ezpata eskuan

— Alde egon ala alde egin...

Eta nire bekatuak
Lagunok
Ez du mea culparik

Bai badakit arrisku bizian gaudela
Badakit bizi-arriskuan gaudela
Eta horretxegatik hain zuzen
Ezpatek odoldu egin behar dutelakoz
Erdaldun nazazue
Lagunok
Egin dezagun bekatu itsusi bat

Ahapetik bederen

Inoizka bederen

Egin dezagun bekatu eder bat

Erdaldun nazazue piska bat mesedez

Erdaren San Bartolome Gauera gonbidatu baino lehen

IZAN NINTZEN POETA HARI LEHEN GUTUNA

Itsaso mutu bat margotu huen
Heure leihoak itogarri eder bat izan zezan
Itsaso ahantzi bat saskian biltzeko modukoa
Ateondorainoko isila heure bihotzaren eneak
Hezur erratuen abarrotsik gabe entzun ahal izateko
Oinazearen sakona malko mulkotan sinetsi nahirik
Ateondorainoko isila
Ezein untzi fantasmak atreka ez zezan heure ahoan
Bazter odolduen albiste

Heriotzaren zaldia
Lau hanketan zuria
Zazpi pausotan iragaiten du
Gure herriko zubia

Aspaldian agortu dituk itsaso haren iturri gezak
Eta konfesatu nahi baduk heure lerratzea
Zin dagit sinatzen dut ez nuen berehalakoan ikasi
Eskua egunero mozten
Ikasia behar hengoen hitzak ez lukeela hitzetan
loratu behar
Poesia balizko erroten erresuma izanik ere

Galdu huen guardasola hura behar huke orain
Elurte honetan idazten jarraitu ahal izateko
Eleak bele bilakatu zaizkiguk eta
Balizko errota guztietarik atera nahi gaituztek
Auzoan zegok poesia Ilunabarrean
Erahildako berri bat ehorzten genuelarik
Azken etxeko leiho ostean
Ukabilen artean ezpainak mugitzen zituen umea

Zazpi pausotan zuria
Heriotzaren zauria
Arinik zatoz nire herrira
Hankagabeko zaldia

Umea leiho ostean dago ezpainka eta mutu
Hilobi berrira etorriko da bihar
Kanposantuek hazitzen dituzte masustarik gozoenak
Eta eskuan estutzen duen kaskiloa
Erakutsiko die lagunei Auzoan zegok
Poesia eta balizko errotak

Abandona erazi nahi zizkigutek
Erreka lehortu zelako aitzakian
Iadanik ez da bustia beleen itzala

Lehen personan mintzo hintzen zuka heure bihotzari
Eta maitea idatzi huen eta ni aipatu
Bekatuak izateraino ezin biluzitako poemak
Beldur hintzen lurra borobila ez dela aitortzeko
Eta uste huen balizko erroten erresuman hintzela
Eguzki hau ez dela bakarra oihukatzeagatik
Dena esana ez baldin badago ere
Ez baita zilegi dena poesiari ematea
Galdera inuzenteen sasoia joana duk

Zazpi pausoko zubia
Heriotzaren zuria
Ez ote duzu herri neurea
Oker perratu zaldia

Bakea erosirik ere ona dela zioskutek orain dendariek
Noizbait ikasi duk zerrien negarra
Janak isiltzen duela Elurte hau Manifestaririk gabeko kalea

Bezain triste gelditu zarete kale-poetak
Ametsondoaren deslilurarren lainotan
Ereinotz-koroaren ordez negurik ez
Dazaguten adarrak bekokian
Ez haiz gauza gezurra bezain eder esateko egia

ERROTARI ZAHARREN OROITARRIA

Lauaxetaren betaurrekoak

Nik ere banuke nahi izanez gero
—Federico, Miguel—
Poeta baten izena ahotan hartzeko
Izena ezizena zuen poeta xume bat
Euskal poeta bat izan litekeen bezain sotila
Zuek bezala zaldi zuri bahitzailez
Larrosaren urrezko erlez
Puntu gaitzak asmatzen zituena Federico
Italia eta Alemaniaren armiarma beltzenek
Eta gero Españaren poeta suminduek Miguel
Lehertu zuten Gernikan atxilotua
Gorrotozko igitai batek ustel dezala heldu zintuzten eskua
—Federico, Miguel—
Nahi izanez gero banuke nik ere
Izen bat ahotan hartzeko
Ezizenezko izen xume bat
—Lauaxeta—
Itzalik laiotzenera eramana zu bezala Miguel
Berunez lotaratua zu bezala Federico
Txapel-okerrak edango yabek
Ardao onena Gómez etxian

Ulertzen dut poeta frantsesaren izua
Frantses guztien izua haren begietan
Picassoren oihalari beha
Betaurrekorik gabe
Poema inperfektu jator bat burutuz
Kafeari azukrea ukatu ondoren
—Gernikaren hezurrak
Merkatu eguna
Hiru ordu terdi bonbaketa
Bi mila hildako
Haritz bat—
Baina poeta frantsesak ezin du ulertu
Picassoren oihalari poeta bat falta zaiola
Euskarazko oihu hori duela eskas
Lauaxetaren betaurrekoak
—«Suari zail, hotzari zail, ukoari zail, gauari zail,
Injustiziei zail, kolpeei zail»—
Oro guztiari zaildutako aurpegien betaurrekoak
Oihu errepikatuak mende erdi bat honuntzago
Betaurrekorik gabe hila Eluard
—«Inuzentzia krimenari garaituko zaio»—
Lauaxeta bezala

Merezi zenuen afusilatzea
Baina ez zintuzten poetaz erahil
—Lauaxeta—
Hemen berdin epaitu ohi baita
Izenez ala ezizenez izana
Hemen ez du astirik ematen poetaz hilteko
Gure oroimenean ez du argi egiten zure itzalak
Gure oroimenean gure herriaren ibai meharrenean
Badugu izen gehiago eskuan hartzeko
—Lauaxeta—
Harririk sotilenak ere laztantzen ditu memoria
honen xirripak
Berunez lo hartutako ezizenezko izen xumeak

Sustatu zenuen mehatzaria
Pikotxa etsai odolez bustitzera
Zergatik hil ziren dakiten hildakoek bakarrik
Luzatzen dute itzala lau haizeetara
Dena emon behar yako
Maite dan askatasunari

Telefonoaren hariak moztu ditugu
Eta opor-zarata da txaide zabalean
Ez da goiza mehatzariek bizkarrean dakartena
Ez dira mendietako mehatzak Bizkaiaren zauriak
Pikotxa ez baita poetek eskuan eusteko luma

Haur batek jaso ditu zure betaurrekoak
Hankagabeko zaldiak hautsiak
Ez daude etsai odolez bustiak
Baltzak dira ordea mehatzarien begiak
Eta sutan diraute zizpa luzeek
—Lauaxeta—
Sendoa bazina zeure odolez
Idatziko zenituzke bide barrijak
Hika dagiat hik urrutizkinari bezala
Ezin hazaket maita afusilaturik besterik

Lizardiren mendia

Berriro igo nauzu zure mendira
Egun hauek sasoiez besteko direla
Neskatx urdin-yantzirik ez dator bidera
Bihotz gazteak gazterik hilten ohi dira

Lilien euskara ikasi beharrez
Zure bihotz xamur hezearen ixuriak
Busti zituen euskararen t guztiak
Poesiaren ihintza ez dugun negarrez

Lagun afusilatuaren gomutaz
Aditz sintetiko bat dakartzu opari?
Heriotzeari aingerutxoz ari?
Eder-ele ozenak zuri beleek zutaz

Ez baita lirikak eritu ezina
Hildako Lizardiren egurraren kea
Goiak egun hartu duen azukrea
Amona hilaz bestelakoa dut mina

Ez dira zuregana gure oinotsak
Ez eta gure oroi-krabelin gorriak
Geltoki asko ditu gure agoniak
Bihozturik hilten dira gazte bihotzak

Euriaren izenak bezain haizearen irria triste
Tristea da orain panpinen minuetoa baratzetan
Kanta debekatu bat daukagun artean ez gaude mutu

Urkatuaren zangoak ez du oroimenik behatzetan
Harentzat duzu gaur dakarkigun bihotz-sorta
gorazarre
Ukabilek bakarrik dakiten otoitzik gabeko oroitza

Egin bezate nahi badute gartzelariek akelarre
Hegal guztiak golkoan ditu Urkizuko urkatuak
Muturik gelditu gara Mutitegiko zelai urdinetan

Gorroto batek gidatu ditu gure pauso unatuak
Zeinen eremu idorra zaigun poeta haien Gaztela
Katilu betean digu eskaintzen heriotzea gosari

Berezko puntua dizu orain Gaztelak gartzela
Paretak hurbildu egiten dira lepo gaztearen gose
Preso isil bat bihurtua da bere buruaren zuhaitz

Zure herriko gazteak orain ez dira hilten heriotzez
Patar botila ireki du goizaldean zuzendariak
Irri jatorra eginen dute urkatuaren lepotik

Lepo mehea du bizitzeari eusten dion hariak
Kriminala ezagutzeko ez dugu behar lekukorik
Negu gorrian loratuko da gazteen bihotz mindua

Urkatuaren fedeak ez dakar bizitzeaz ukorik
Desterru luze honen haizearen hotza dela zioa
Isila da biharamonean patioko pasioa

* * *

Urkatuak hartuko ditu zureak zenituen bazter
Heriotzez hil zinen Lizardi bihotz-begiak itunik
Haren begiak dituzu orain edertasunaren maizter

* * *

Mantxako eremu itogarrian zelda bat dago hutsik
Han dauka zain preso berriak damuaren dama biluzik
Poema lizunagorik Lizardi ikasi ez dizut nik

Argiak ez beste ditut maite
Gailurrak...
Hegalik gabekoetara ekarten
Nau lurrak

Oinez besterik ezin
Oinez eta ez airez
Nik bideak
Egin
Oinez eta oinazez
Nahiz hanka biok hautsi
Bidea ez baita bidazti
Ezin ninteke sasi
Guztien
Gainetikan bizi

Eskuz diet behar
Eskuz eta ez mokoz
Nik lagunei
Heldu
Eskuz eta estu
Datorkigun uholdean

Inor salba dadin
Ezin ninteke sasi
Guztien
Gainetikan bizi

Hitzez ditzagula
Hitzez eta ez txirulaz
Esatekoak
Kanta
Hitzez eta iltzez
Urretxindorrak ez baitaki
Torturaren dantza
Ezin ninteke sasi
Guztien
Gainetikan bizi

Larruz niezazuke
Larruz eta ez lumaz
Maitasuna
Froga
Larruz eta lurraz
Amodio garbiagora
Emateko urrats
Ezin ninteke sasi

Guztien
Gainetikan bizi

Besoz ohi baitira
Besoz eta ez hegalez
Hildakoak
Jaso
Besoz eta basoz
Bihur daitezen sustrai
Luizi honi eusteko
Ezin ninteke sasi
Guztien
Gainetikan bizi

Zutunik nahi nuke
Zutunik eta ez auspez
Urkabera
Etorri
Zutunik eta etenik
Diet egingo irri
Hodei honen azpitik
Ezin ninteke sasi
Guztien
Gainetikan bizi

Gainik gain nenbilke
Ai, hegaztia banintz...
Inoiz nahi ez nuke
Sasi
Guztion
Gainetikan bizi
Hodei honen azpiko
Lur gainera naute
Hegalik gabekoek ekarri

Arestiren mailuma

Bakarrik hil zinen Aresti hil bakarrik
Barkazioa eskatu gabe zeure koplak zuhurtu gabe
Eskertzen dizugu
Bakea eta gerra bereizteko baliatzen ez zaigun
Zeure kriselu itzalia
Orain egia esatea ez baita aski
Orain edertu egin behar da saldu

Eskertzen dizugu mea culparik gabeko bekatu hori
Gerra baino latzagoa da hau
Gerraondo kaburik gabea
Ez zintugun bihotz bakarreko poeta nahi

Eskertzen dizkizugu herrak eta errakuntzak
Gauzak aldrebes ikusteko adorea
Axularri kendu zenion hitz ederra oilarite
Eta zeuk eman zenion hatsa gorri
Eskertzen dizugu garaiz hil zinen Aresti lumazuritu
baino lehen
Bakarrik hil zinen Aresti hil bakarrik

Atera zenuen florerotik euskal poesia
Argia eman zenigun lurrinaren ordez
Baina iada luzeegi dirau itzalirik zure kriseluak
Begirik gabe gelditu dira gure harriak

Laudatzen zintuztenek lortua dute kadira
Baina ez dugu itsu jarraitu nahi
Eskelen maila poetikoa jasotzen ahaleginak joten
dituzten arren
Ez dizkiegu harriok beste aita baten etxea
eraikitzeko

Karranka zurienen lumazko gaztelu
Zure aitaren etxea ez da gurea
Aita zure etxean maizter geunden gu

Balizko errota bat jaso behar dugu etxe horren
harriez

Egia besterik ez zela zure ahotik aterako gezurrik
Eskubidea ahotan hartuz eta ez eskuan
Zeure burua debeku guztien biktima egin nahirik
Kulpitutik bezala zintzaizkigun mintzo
Harria aipu zuk gartzelakoa ezagutu ez zenuen
horrek gartzelak
Debekuz bakarrik osatuko balira bezala harria

Herrimindua sinesten dizugu baina exiliorik gabe
Kulpitutik oihu egia besterik ez zela zure ahotik
Eta hain goraki aldarrikatuz eskubidea egiaren
Berri ez genizun entzun ahotik
Gelditu ginen esku hutsik

Eta zazpi karriketako barrenkale barrenan
Topatzen bazaitut malmindurik
Errukituko natzaizu galiziano
Kenduko dizut mailuma eskutik
Non daude elkartzera altxa behar zuten igitaiak
Ingudean landuko zaitut burdin bizkaiko
Sufrikarioan ez zaitezen bizi

Idazten ausartu ez zinen poema ikaseraziko dizut
Haize-pilar harroa eginen zaitut
Balizko errotako teilatuan paratzeko
Berriro ere oilaritea jo diezaguzun
Egunsenti zurien kontra
Lumazko oskorrien kontra

Maizegi ematen diogu negarrari
Umezurtz gaudela umezurtz utzi gintuzula
Poeta beti umezurtz ez balego bezala eta bakar
Orain Barcelonako euskaldun unibertsitate mutil
haiek
Beleak bilakatu dira eta mokoa gure bihotzean
odoldurik

nevermore

Errepikatzen digute ankerki
Etxekotu egin baitira kanpoko errainu beltzak
Eta ilunpearen eremua zabaltzen dute luma zuriko
Ohatze xamur bat eskaintzen digute
Kontestazio korrektoan
Mokoan dute gure galde guztien erantzuna

nevermore

Hegan nahi ezik zuhurtziaren patxadan
Eta erantzuna bera dute izena

nevermore

Lagun iezaguzu beleak eta errentariak harrika
uxatzen
Ala ez duzu nahi zure aitaren etxea gure balizko
errota
Haizatuko ditugu eta ez dira jazarrera bilduko
Ez dituzte lantzak atxikiko ez dira kixoteak
Itxura hutsekoa dute zoramena
Orru eginen digute barrikadarik argazkigarrienetik
Edo Gernikako Arbolan eginen dute kabia
Herri madarikatu honen umerik jatorrenak urkaturik
dauden adarretan
Eta ez diegu itzulten utziko

nevermore

Eta datozela ur debekatu guztiak zure aitaren
etxeari lur jo eragitera
Eta azpian harrapa gaitzala
Utzi zenigun poesia mailu bilakatzen ez badugu
Utzi zenigun mailua poesia bilakatzen ez badugu
Adorerik gabeko poe

nevermore

Inoiz sekula gehiago poemarik biluzi poema biluzirik
Inoiz sekula gehiago urak bide egin dezan utzi
Urari bidea egin behar zaio mea culpa mea culpa

nevermore

Ez dute sinetsi nahi hondarrean bizi garela
Itsas hondarrean Bizi hondarrean
Uhinik heltzen ez den hilondartza
Eta mokotan hartzen zaituzte eta laudatzen
Ez dakizu zenbateraino behar dituzten zure harriak
Luma damutuek

nevermore

Mea culparik abestu ezak salbatuko zaitu gure
kondenatik
Urre orritan oparitzen da zure poesia
Eta merke saltzen da Arestik maitatu zuen puta hau
Ez dizkiote aberriari bihotzaren mugak aitortu nahi

nevermore

Poeta zikiratua etzan zaituzte luma lehortzan
Ez gaituzu irakurriko baina konjuratzen zaitugu
Badaukagu zurekin solas biren zorra
Zaurietarik hartzen dugula arnas galdua dela zure askazia
Errentariak jabetu direla zure aitaren etxeaz
Kabia egina dutela gure zaurietan ez dute irten nahi

ATLAS GALGARRIA

Iheri ez baldin badakizu hondarrera zoaz itsaso honetan
Amultsuki hartzen ditugu itoen hezurrak
Oinazearen errautsek ongarritua
Ez duzu hauxe aberririk eztiena
Nekez loratzen dira esanak eletan eta beletan izan ezik
Eta mezulari datoz irinetan zuri
Une batetik bestean hasiko da sarraskia
Hurbilean somatzen da ilargiko maindire harrotuaren lauroinka
Zakur-haginezko ahoa zabalik
Ez duzu hauxe aberririk eztiena bihotz
Bakarreko izan nahi ez dugunontzat
Erresuma honen izena ez da Utopia
Uharte baldin bada uharte zikiratu gabea da
Izaro honek ez luke burua eten nahi
Balizko irinetan mozorroztu ez direnetarik
Balizko errotak Harrizko komunioak

Ez dago erresuma honetara lekarkeen oinatzik
Ez honat zaitzakeen izar hilik
Errota hauek mainguak dira
Eta osaezina da bere mintzoaren gramatika
Alegiazko ibaiez da elikatzen
Balizkoa da baldintza batean bizi gara
Naufrajioetako mastek habitatua
Banderarik gabeko zubi
Aberri bilakatuko ez dugun zubirik gabeko erresuma
Ez maitasun ororen deserrian
Balizko errotak Fnisterrako faroak

Sufritzen dakigunak bakarrik bizi gara
Hemen ez dago lekurik
Oinazeaz zientzia bat egin dutenentzat
Malutu ziren beleak eta egia defendatzen dute
Baina harriari hegalik eman gabe
Eta orain lumaztatu egin behar ditugu
Erroton paretak suntsiezinak egitearren
Egia edertu ere egin behar baita
Gezurra bezain eder
Liburutegi bat bezala kartzelan
Liburutegi baten kartzela bezala
Egia asmatzen ausartzen dena
Bakarrik bizi liteke hemen
Balizko errotak Benazko derrotak

Albatros zaharra uste genuenak tronpatu egin gaitu, portu faltsura eraman du gure untzia lainopean. Eta etzanda gelditu da, lehorra jota, sabela zapartaturik, itsasora ezinik legokeen balearen antzo. Uhinek zakar astintzen dute, eta ez dago untzia husterik.

Zerrazoia altxatzen hasi duelarik izututa gelditu gara: lainoa ez da lainozkoa, bele samaldak dira guregana etorki, untziaren hondakinetara gose. Hauen karranka zen salbamendura zetozkigukeenen arraun-marruma. Hobe Albatros madarikatu hura akatu bagenu. Bazterrik gabeko itsasoan holandestu behar bagenukeen ere.

Estali dituzte kanoien ahoak, urratu dituzte belak, txirtxilatu dute gure bandera. Ah, mokoon karraska, untziak ekarri behar lukeen kontrabandaren zain zorroztuak. Hartu dituzte lekurik egokienak mariak behera egitean gure untziaren zauriari ekiteko. Untzia Belate berri egin da.

Eztul egin dut, arnasa hartu dut, eta bizia salbatu nahi duenaren ahotsik beleenaz kantatu dut:

ONE BALLAD FOR THE RAVENS

The ravens of black feathers
The ravens of white pen

Eskerrik asko senide onak
Poetak luma zuriko
Banekien ez ninduzuela
Itolarrian utziko
Zatozte denok untziko
Berriro elkar besarkatzeak
Ez nau poztutzen gutisko
Zuen eskas egin nuen sarri
Nenbilela urrutiko
Mendian edo huriko
Zuek noiz irakurriko

Nork du merezi lumadunetan
Poesiaren koroia
Ereinotzaren hostoan dabil

Belea edo erroia
Mihina ez du herdoia
Mutuko ahal da behin betirako
Erresiñola etoia
Gure arraza ez da izanen
Bere kantuen morroia
Halaxe aitortzen ohi da
Beleak jo zuen goia

Gora dezadan moko betean
Kaiolako ez den kanta
Haren berdinik ez du basoak
Hasten bagara karranka
Ze sinfonia xarmanta
Hura bai ezti hura bai eder
Hura ez baita marranta
Hura entzuteak bihotza hustu
Egiten dit tantaz tanta
Esaeretan esanda
Belea berdintzen lan da

Poeta zaharron bizimodua
Ez da gauza erosoa
Sekulan ere ez zaigu falta

Lumakoen erasoa
Hau ez da patu gozoa
Entzun baldin baduzue inoiz
Egin nintzela usoa
Sinestazue bele lagunok
Gezurra dela osoa
Ni ez naiz hain inozoa
Belea ez baita zozoa

Jauzi egin behar izan nuen. Itsasoak arkaitzetara bota ninduen. Malkarrean gora abiatu nintzen ahal nolaka. Atzean zetozkidan beleak beleka. Zauri bete nintzen. Errota zahar bat topatu nuen baso bazterrean. Hela egin nuen. Bultza egin nuen atea. Arratoiez gainezka zegoen, baina irri karkaila zoro batean agurtu nindutelarik ohartu nintzen bele artean nintzela berriro: arratoi lumadunak. Hotzikara larru egin zitzaidan, bustia bainengoen.

URAK DAKARRENA

Ugariak dira tunelak
Zubiak baino ugariagoak dira tunelak
Mendizko uhartedi batean bizi gara
Eguzki beltzean luma zuriak beltz
Haztamuka egin behar izaten dugu aurrera
Noraezeko talde erratu bat

Ez diogu elkarri aurpegira behatzen
Hemen urkoa ezagutzea arriskutsua da beti
Mozorrozturik maite behar izaten dugu
Eta isilean eragin errotarriari
Zigor zelda mugarik gabeko honetan
Ez dugu jakiten hurrengo pausoak
Oinarri hartuko duen

Erre egiten dute esku luzatu anonimoek
Lurpetik egin behar dira bideak
Tunel herria da hau urak egindako bide
Argia itzali behar izan zuen trena

Zaila dago hemen zubiak luzatzea
Zubiaren begia tunelaren ahoa da
Eta irentsi egiten gaitu
Eta ez dira denak bihotzerainoko zainak
Eta ez dute argi baten izpia denek hondoan
Eta tuneletik ezin da gailurrera heldu

Ibai hau ez da ur zurbila
Oinatzak eta oinazeak dakartza
Eta zikindua irten behar du gure errotatik
Ez bakarrik ametsezko irinez

Baina ez diet galde egitea debekatuko
Ez diet eskua ahora ekarriko suizidatu behar badute
Ez dadila izan eztarria harriz

Edan dut ur honetatik
Eta badakit erantzunik gabeko galdeak daudela
egarriak
Bertute asko dituela Harrizkoa da
Mugitu behar den errotarria
Eta ibai honek ur mehea dakar

Nire ibaia ez dator itsasora
Nire ibaia ez da ibai
Inoizko ubidea
Kantari ez dakien erretena
Ur mehea dakar baina
Leporaino hartzen nau

Nire ibaia ez dator itsasora
Nire ibaia ez da ibai
Erreka auspeztua
Izar bakarreko ispilua
Ez nau hezatzen baina
Busti egiten nau

Nire ibaia ez dator itsasora
Nire ibaia ez da ibai
Ezin ditu bi bazter
Lizarrik gabeko errekaldea
Ez dakit nora baina
Eraman egiten nau

Nire ibaia ez dator itsasora
Nire ibaia ez da ibai
Egarriaren lotsa
Hodei nekatu baten malura
Ez nau asetzen baina
Ito egiten nau

URAK EZ DAKARRENA

Pistolek balakatuak ez dakigu
Balak zein begi ez dakigu
Edo bala edo harri edo leize izan zen edo urkabe edo haizto
Suntsituak bizien mundutik ez dakigu
Hilik ere ezin dizkit ekarri ur mehe honek
Azken oihuren bat ez dakigu

(Mire aberria oihu bat da
Nire aberriak ez du hitzik
Nire aberria txipia da
Ongi ezagutuko du ihesi dabilenak
Aberri guztiek izan behar luketen bezain txipia
Aberri guztiek izan behar luketen bezain mutua)

Deserritu zizkiguten hilen mundutik
Ez dute harresi zuri batek bildutako atsedena azken aberria
Haien ondoan dago nirea leizeen hondoan
Bide berriak bihurtzen diren bidezidorretan dago
Suntsitu diguten ororen oroimen ur mehea
Errotarriak mugitzearren baina ur zulatzaile

Mugak ezarri behar dizkiot eta ez nuke bakartu nahi
Nire aberria ez da tapia zuri batek babesturiko
bakea
Hitza asmatu behar zaien aberrietan dago eta ez
dago

(Euzkadi bakarra ez da nire aberria
Hitz bat)

Oraindik ez dut hitz hori aurkitu
Ez haren hezurrik oraindik
Ele zuriak lumatzen dihardut ez da ageri
Noizbait entzuna
Maileguan ezin eska
Guztiak ezagutzera behartua ahantzi egin nuen
Asmatua ez zen hitz hori menturaz ezpainik gabe galdua
Ahantzi egin dut haren hotsa
Errotako zurubi zaharrak maila bat falta du hitz horren eskasean
Ez naiz gorago ausartzen

TANTA BAT URETAN

Nire ibaia ez dator itsasora
Nire ibaia ez da ibai
Bere buruaren txalupa
Itsaso izan nahi luke
Nire ibaia ez da ibai baina
Nire ibaia ez dator iturrira

HIRI LUMATUAK

Chove na cidade diot
Euriago egin dezan diot na cidade chove
Ari du Sao Tomén
Ari du Cabo Verdeko Praian
Deserrituen euria euskaraz saudade
Bakardade guztiak hitz batean bilduak
Euria ari du gure bihotzetan coraçao

Chove na cidade

Euria egin dezan nahi dugun bezala
Na cidade chove diot
Eta hala ere euria ari du beti
Hemen coraçao Luandan
Coraçao hemen Maputon
Chove bihotz hemen
Vasco izen propioa den hiri lumatuetan

Nire bihotza hiri lumatuez dago habitatua
Baina bihotz honetan hilen ez diren hiriak dira
Iraunen dute eta biziko dira bihotz lumatuek habitatuak
Berriro ere bazter jo dezagun
Geure aberriaren mugak aurkitzearren
Eskeletoak bezain garbiak eskeletoak bezain aldagarriak

Ez da euri berdina hiri guztietan zorionez
Nire herrian nago atzerrian nago nire herrian
Eta herbestean ez naiz arrotz

Eskuak zikin zangoak euri ezpainak bihotz
Nagoen herriak ditut aberri

Ez da urrundu beharrik kaleok ibilteko
Ibiliz bakarrik ezagutzen diren kaleotan
Zangorik gabeko zaldi zuriak ikaratzen dituen zubipeotan
Isladatzen da gure aurpegiaren uhartea

Amodioak badoaz badatoz zubipeko lumak

Zazpi euri desberdinetako harriz daukat osatua

neure kromletxa

Haginka egiten didan lurraren lepoko

Hiri guztiak ez dira irin
Eta irin guztiak ez dira beltz
Eta beltz guztiak ez dira personak
Baina persona guztiok gara beltzak
Kukuak jo zuen eta nork esanen oker ala zuzen
Bake hau beraien gerra bezain zikina da
Zure begiak edertzen banau
Maitasuna itsua delakoz da

Hiri guztiak ez dira hiretzat
Eta justiziak makila behar du (herrenka dabil)
Zakurrak katerako dira
Zuhaitz eroriari orok agur
Josteko makinek ez dute balio zauriok josteko
Itsu okerrik ez dago
Asteak hamaika egun ditu

Hiri guztiak ez dira herri
Hemen eskubidea ez baita bidezko
Soilduari lazten zaizkio ileak
Isiltasun guztiak ez dira mutu

Urrutiko intxaurrak maite ditugu
Eta balizko errotan jotako ametsak
Aitzurrak eta palak muatuko naute
Ez dut aitaren etxea defendituko
Orhiko txoriak Orhi gorroto

Hiri guztiak ez dira zuri
Eta zuri guztiak ez dira lumak

Luma bakarrak ezin du hegalik

Luma bakarrak ez daki hegan

Urak darama

HEMEN

Hemendik idazten dugu orain
Non guztiak biltzen dituen hemendik
Nonahiko hemen guztietarik
Paretetan idazten dugu itsasoan idazten dugu
paretez itsasoz
Idazten dugu eta hilak egon behar genuke
Gertakizun dagoena idazten dugu
Kaleak dira liburu honen orriak
Hizkuntza berrian idatziak
Irakur ezazue torturatuen esperantoa
Gutun anonimoak gutun ageriak
Zigarroen ketan idazten dugu ohe abandonatuetan
idazten dugu
Eta gure gorputzak eskaintzen dizkiogu idazteari
Irakur ezazue bularretan labanak hartu zuen
plazerra
Dotore hegaldatzen dira estukak berriro
Eta beren arraultze espoletadunak elurtzen
dizkigute
«hobe zenukete errendaturik»
Baina randebu horretara ez goaz gu

Norbaitek karpeta bat zabalduz gure izena
pronunziatzen duelarik
Autobusez aldatzen dugu hiru bat aldiz
Hemengoa idazten dugu nonahai
Galdu genituen adiskideei idazten dugu
Hilik dauden lagunei ulertzen ez gaituzten lagunei
Plaza hutsetan dugu ateoste guztietan dugu
Idazten plaza beteka dugu isiltasun beteka idazten
Maitasun konsigna debekatua
Orain artekoa idazten dugu gerora
Noiz guztiak hartzen dituen oraindik
Oraindik idazten dugu hemen

Gauaren katu haundixa datorrenean
Nik defendatuko zaitut
Begixak atera nahi badizkizu
Maite nauzun ala ez galdetu gabe
Defendatuko zaitut nik

Eta gauaren katu haundixaren atzetik
Zakur amorratuak baldin badatoz
Zure bila
Nik defendatuko zaitut
Atera irtenen natzaie ez dezaten amil
Eskuok jaurtikiko dizkiet zaunka ez egiteko
Hezurrotan dezaten gosea berdin

Maite nauzun ala ez nauzun
Defendatu eginen zaitut

Ez zaitzaten iratzar zu hemen

Ala ez nauzun maite

Zure begixen lumek
Osatuko naute

Itsua zara ni edertzeko eta ez zaitut nahi lo
Iratzarri egin behar duzu eta hala ere hemen
Ez da deirik hartzen beti da gau zure eskuetan
Baina zure begixak behar ditut
Kale berrixak zabaltzeko hemen
lratzar ez zintezen galdu nituen eskuak neureak
bakarrak
Maitasunak malura dakar

Chove na cidade

Zure begixen lumek usotzen ez nauten artean
Bakardadean pasiatzen dut harrotu egiten naiz
Iratzar ez zintezen galdu nituen
Eta begixak zabaldu behar dituzu kaleotara
Zer esan jakin gabe ibili ginenotara
Ezer esan gabe maitasunak

Na cidade da chuva morrem os nossos corpos

Ez naiz ausartzen iratzartera

Eta hala ere hemen badago ulertzen ez gaituen jendea
sufritzen gaituena maite gaituena gau honetan
Eta izena duen jendea eta edaten duena eta irri egiten dakiena
Zure begixek argituko lukete plazarik isilena
Biok isilik egon ahal izateko malura

Chove noite na cidade

Geureak bezalako hiria izanen gara hemen
Maitatzen bagara zu ta biok hiri bat gara
Eskurik gabe dakar

Na cidade da noite chovem os nossos mortos

HAN

Han

Zure mundua ez da erresuma hartakoa
Han
Non ahantzi egiten den non ahantzi ezin den
Non itsasoa margotu egiten den
Non bakarrik egoten den
Non bakarrik ezin egoten ahal den
Non katuak diren libre non hil egiten den
Non adiskideak non hitzak non maitasunik non
Non loa eta ametsa ez diren bat
Non ikasi egiten den non idatzi egiten den
Han
Non non zaudeten badakizuen
Non poetak ez dauden preso Rimbaudi tiro
emateagatik
Non ateak ixteko diren non bisitak ametitzen
dituzten
Non harresiak zikoinek iragaiten dituzten
Non mutu ez non damutu ez
Non baina non beti non eustea bera den haustea
Non ihes egitea ez den ihes egitea

Non duintasuna zigorrean neurtzen den
Non kilometroak non mehatxuak non noiz
Non jipoituak non hala ere
Non errotek urik behar ez duten
Non nik diodan
Han
Non han zaudetenak gu zareten
Non gu ez gauden
Han
Non zuk diozun hemen
Han
Non zuk diozun ni ez naiz hemengoa

Punching-ball bat izana zen baina
Orain ez da zaku bat Zeldaren pareta
Zuri erahileak duintasunez lehertzen dituen
Lanpararik argitsuena sapaitik zintzilikatua

Punching-ball bat izana zen baina
Orain ez du oihurik egiten ahal
Esku guantedunak ezin eragin diezaioke minik
Urkabetik delikateziaz jaisten du orain
Esku guantedunak

Haizeak laztantzen ez duen minik
Gabeko mihina da orain 3x2ko bihotzean
Eta bere mutuak iratzarri
Egiten gaitu taupaka heldu den hotsean

Bere burua urkatu du
Baina ez du bere burua urkatu

Hilik nahi ez genuelakoz da hil

Gorroto zehatzez bete guante
3x2ko bihotzak

Hilobia oinezkatzeaz akiturik
Bere burua jaso du gauaren azaleraino
Erresakak zangopeko hondarra jan dio
Esperantzak erretira egin duenean

Bestela hil behar omen zukeen gazte honek

Lekukorik gabe borrerorik gabe oihurik ez
Konsignarik gabeko harrotasuna du
Bere buruaz beste egin gabe jaso du burua
Erresakak zangopeko esperantza jan dionean

Bestela hil behar zukeen gazte honek
Diote duintasuna hiztegietan bilatu behar dutenek

Baina gazte hil behar zukeen honek
Haur bat zen azkenak afusilatu zituztenean

KANPOSANTUKO NUARBE

Hilobian sorturik bakarrik dira ederrak larrosak
Eta ederra da ehortziaren gaineko bandera
Igaturik zazpi pinu luzeren erdian
Zutik etzateko
Kanposantuko nuarberainoko aldapa igaiten ikasi
behar da

Harroak dira larrosak afusilatuaren harrobian
Eta kolore auspeztuak dira banderarik amultsuena
Zazpi pinu ketsuren aurrean
Nork bat bilatu zioten hil aditzari
Haurrak zirenek
Kanposantuko nuarbek norainoko aldapa duen ikasi
genuenean

Pinudi baten erdian kanposantuko nuarbe
Pinudi baten erdian eta pinurik ankerrenak
Harresiaz barruan zazpiak sustrai eginik hil aditzean
Afusilatu guztien hezurren bila
Inor ez dadin altxa bizirik
Iraun genuenon bihotzaren eske

Kanposantuko nuarbeko aldapan gora
Orduan haurrak zirenak
Zazpi pinuak zain dauzkate

Kanposantuan ateak beti zabalik nuarbek

BIHAR

Nire loreak ez du aldarerik
Idatziko du poetak
Baina bideondoan Hemen Xabier hil zuten
Eta jainkoari otoitz ez egiteko kanposantu zokoak
Irri egiten dakien begi pare bat
Portugesez mintzo balira bezain xamurrak
Eta ezagutzen ez zuela oihukatuz
Salbatu egin zuen adiskidearen oroitzapena

Beti izanen du poetak poeta surrealistek ahantzi
egin zuten
Neska herren bat eguneroko espaloiean

Ez du aldarerik idatziko du lorearen poetak
Baina badu inork ez dakien sekretu bat
Apalagoak ere harrotu eginen lituzkeen duintasun
bat
Badu amodio arriskutsu bat
Badu larrosak noiz loratu behar duen aholkatzen
dion batzorde bat

Nire loreak
Idatziko du beti poetak

Eta horiek guztiak maiteegiak izanen ditu bihar
Aldare bihurtzeko

Azken barrikada lastozko andramaloak eta trapuzko
gizontxaperoak eta zuhaitz genealojiko guztiak sutan
Ederra izanen da gau edo egun
Eta beharbada lortuko dugu minutu horretan herri honetako
estatua guztiek minutu beteko isilaldia gordetzea
Bai bihar egun baino egunagoa izanen da
Ilargi berdinetik edanen dugu
Bihotz guztiak esku guztiak bihotz
Pozik egonen gara behar adina pozik

Bilduko zaizkigu hika jainkoari bakarrik egin ahal izan diotenak
Erregeren lepoari zerion arnoaz eginiko odolkiak lepoan
Alostorreko leihoetarik behatuak izan zirenak
Arbasoen basotik ihes eginiko basajaun makilatuak
Siberia guztietarik helduko zaizkigu eskuak
Arma eske Ezpainlapitzik gabeko putarik ez

Estrapozo eginen dugu estatua suntsituekin
Kale guztietako izenak aldatuak izanen dira
amodiozko
mehatxuak nahastearren

Hainbeste bider naiz irakurria eta hainbeste
hizkuntzatan dago
idatzia non euskara bera asko den iadanik bihar
osoa
ikasia izateko
Entzun inozoen proposamen zoroa Orain mozten
ahal dugu
bizarra

Dohan izanen da maitasuna kanposantuko paretean
dohan
afusilatuko dugu
Eta baten batzuek boluntario
Urria izanen ez den oktobre bateko eguna izanen da
bihar
Denok aspaldiko ezagunak izanen gara ez da zaila
Norbaitek gogoratzen al zarete esanen digu eta
oroitzen ez garen
solidaritate batez mintzatuko zaigu ezizenak
arinki emanez

Baietz eginen dugu eta zurruta eta zurruta ez diezaguten esan
festazaputz
Hasiko zaizkigu zangoak hizketan eta sudurra ikusten
Zoriona ezinezkoa ez delako froga

Ilargi berdinetik edanen dugu
Minutu beteko edertasuna
Besarkatuko gaituzte eta ez ditugu besoak sobera estutuko
Goraki oihukatzen duten beleei erreparatuko diegu
Eta kanposantuko lainotik datozen zuloei
Bihar ez da egun ez da eguna
Biharamona da

IZAN NINTZEN POETA HARI AZKEN MEHATXUA

Karranka zuri bele luma zuriko
Moko betean sinetsi diate etorkizunaren mezulariak
direla
Zalantzari gor elebele
Hegaldi ausartean kabiatik hurbil belele
Derrotaren armoniak karranka
Iparragirrerik gabeko gitarrak Beldur ematen diate
Hariak urkabean ere tinka litezke
Lehorra da luma zuriko beleen itzala
Baina ezin duk ahapetik idatzi

Hanka luzeko zubiak
Pauso erdiak bustiak
Heriotzaren ardotan dagi
Irrintzi zaldi zuriak

Ez hekien hegan eta nekez duk aurrera ikasiko
Galdu huen guardasola hura behar huke orain
Eroriko honetan idazteko astia izan nahi baduk
Poeta batek bezala Harria eskuan
Da herriaren eskubidea Beleen bazka haizela
Luma zuriko elurte honetan
Itxi eginen dizkiegu balizko errota guztien ateak

Eskuak ez daki entzuten
Egunero moztu behar duk hitzbidean
Datorren hitzak ere zango itsuak dizkik
Ez hazaten lilura hilik dauden hitzen argiek
Itzul hadi balizko erroten erresumara
Zain dauzkak denek deitoratu nahi diate
Ikaro baldarraren erorikoa

Hankak ez ditu lerratu
Ez eta zubiz erratu
Heriotzaren mailuak ez du
Zaldia oker perratu

Esak eder esak gogor
Eta bihotzari mintzo baldin bahaiz
Oroit hadi harriari ezin zaizkiola
Begiak nolanahi atera urdinduak
Dituala ni guztien oinazeak Luma
Itzak ele zuriko beleak jo
Itzak ametsak irin hitzak
Higuingarria da legamiarik gabeko ogi hau zuria
Hator erresuma honetara har itzak
Bolizko dorreak ez baina balizko errotak

Balearen zurrunga besterik ez zekarren itsasoa
Eta elefante ebasten utzizaleen letaginez egindako
Bolizko dorre berriak ez dituk
Poesiaren erresuma Letaginik gabeko orro
Eguzkipeko itsaso
Baina erorian zeudek ordea balizko erroten paretak
Erasorik probokatzen ez duten ele zurien kabi
Mugak ezarri dizkiate eta debekaturik zeudek
Arma debekatuak Gerla hau heriotzerainokoa omen
da
Baina inor hil gabe

Zaldiak izerdi hotza
Arin dakar heriotza
Ez du zubirik behar izaten
Joteko nire bihotza

Hator jaso itzak hitzez hitz balizko errotak
Ez duk burua zertan zuritu behar
Zabal ezak heure hegoen guardasola beltza
Egin dezagun orro elausoak diezagun oihartzun

Ur berriak datozen herrizko errotarri honetara
Debekatuak dauzkagu arma guztiak baina
Hitzak ez du hitzetan loratu behar

Benazko poesian balizko errotak

Jose Luis Otamendi

Hodeien lauroinka ez da historiaren kurpila, bizkor doaz euri-herri honetan galego haizeak bultzata; gu berriz herren lurrean. Ai isil bagintez aduana orotan barne-hazkurak deklaratu nahi izan gabe. Ordea poesia dugu sujeta, hots, minberatasunaren tajukera, hots, paisaia eta galde urragarriak, hots, ez dakita.

Kreazio osteko astelehen elkor hartan, beharbada giza-siniskerak edertzeko sortuko zen poesia, edota ardiek jandako iluntzeak ez ahanzteko. Poesiaz komunikazio, gogoetagune, erresistentzia dela, joko, ezinaren artea dela esana dago, botalarria dela, krimen apaina. Ez da, hala ere, eder kontu hori barruak jaten dizkiguna, baizik eta, zer egin ederraren hilotzarekin. Alferrik ari garen jakitea, zergatik hasi ginen behiala eta amore ematekotan nori eman gure amorea. Hara hor koxka.

Poesian nola bizitzan inozentzia utzi beharra dago galtzen, tamaina batera iritsita ezin ibiliko gara

«txoria naiz ala otea?», bekatu egiten ikasteko pudorea behar da, lotsa. Halatan jabetzen gara eguneroko bizitzak bahiturik gauzkala, ahantzia dugula harkaitzek, apoek nolako begiz ikusten duten, zelan mintzo zaizkien kondenatuak goizalba krudelari. Poetika modernoa subjetibatze prozesu batean mamitu dena bistakoa da, horrexegatik joan-etorriko ibilia osatzea eskatzen zaigu, gabiltzan lurra larri zedarritua datza, kateatzen ditugun hitzek mundu osoa utz dezakete ate. Organikoa dateke poesia zilegi, ez harri, loratu bezala usteldu eta biztu egin ahal dena. Baratza honetan gotzonak hazten dira, hurrena patrika batetik ihesi infartoak eragin ditu poematto batek. Oraindik ez dakigu zer den. Ez da gizakia bizi ahal poesiarekin bakarrean; gabetanik zurmin, gorputza eskas duen arima.

Mundua ulertu, edo asmatu egin behar da bederen, serio ausnartu geure baitan, hobetzekotan ezer. Kantatu bai, poema batek kanta lezake iraultza, ordea ezin du ez den tokian ernaraz. Iraultza bakoitzak zenbat helize egindako poeta, haragi zirtzilik maiteminezkotan, korbata horia, derrota sakonegiak. Haur izaritik erabat irentzeke geundela irakatsi zigun, egun gizon-emakume egiten ari gara bere odoletan

eskumuinak iratoz. Zein zapart ederra hitz batek eztieulien jardun izunari. Izan ere borrokarako da poesia, branka hotsa du arnasak ezkaratzetan, gure gibela amiltoki paregabea da Ikarorentzat, odola loditu egiten zaigu horizontea jotzean horrenbeste irakinaldiz. Hemen gehienak dira Jainkoa oso larri zenean jaioak, ez bait zeukaten liburu xahar bat baino hotza kentzeko. Eta poesia besteren bila dabil, eta hitzak ez du hitz soilean, ez farfailetan loratzerik. Ez dute ez, hitzetan hustu behar hitzek. Ez haatik ekintzek pantano edo pariamentutan lotaratu. Amodioa zein kaiolatan lerratu, eta lurraren besarkatze errotiko hori, eta ilargiaren zahagia legezko arpilaketa eta berriz aurkitutako zilarrezko «h»ak. Zein kategoria ezarri hire suminaren karatxoari, eta bala bat ez al da aski hitz minbera traizioaren sabelean. Lora bitez gure gorputzetan ekintzak, eta hitzak txarrantxazko distantzietan. Ez ditzagula ezkutatzeko balia. Bihotza dugu gure batailetan ezkutu bakar. Eta galdu eginen dugu irabazteko.

Poetika nahi dugu berritu. Omen. Ezer berritzekotan, abangoardia borondatea duenak badaki inoiz azkenputz izateko ari dena. Eta hemen. Euskal Herrian, euskal poesian amenik ez.

Balizko poetikarik egituratzekotan benazko hitzek osatuko dute, denboraren harian eskegita eguzkitara, zuzenak batzuk eta lokak besteak, lainoak eta harroak; ez ordea eguteraren morroi, ez haize alde. Kontra eta giza-bihotz ainubeak larrutze aldera. Aldenik alde hartuz lurralde hori. Aldioro betidanikoa minbera lezakeen hitzaren bila ibiliko gara ihintza suhar hura noiz eihoko.

Aurrez aurre begiratuko dio poetak bere aldiari. Salatu behar dira mihin zuriko kanpaiak, gizakia zapuzteko baliatzen dutelako poesia eder kiratsetan, on egiten dutelako gezurra eta gezurra ondu, oinen azpiko hondarra jaten digutelako oinez nahi dugunoi, eurak zaldizko dira. Oker dabiltza denetatik behar dela diotenak, gauza bat da negu gorria nola igaro eta kortesia bestea, egizue kontu Noek zenbat abereri galerazi zion geroa.

Poetika berrien xedea ez da ezer estrainekoz sentiaraztea ez bada, ez bada marea nola etzaten den otzan ekintza eder baten aitzinean eta «negroa naiz» oihukatu, ez baldin bada auto bat diren zuhaitzak oro aurretik eraman nahi dituena.

Eta geure barne itsasoan holandestuta ahots anitz dugu. Etxekoak nola auzo urrunetakoak. Gogo-

tik maite eta gorroto ditugun bozak. Amata ezin zorrak birao bat edo aitagure birekin.

Gogoko kantoiak zorrozten dizkigu poesiak, eta zerriei leña. Hortik aurrera norbere historia-geografiak definitzea dator, noiz-nongo nahi dugun izan, noiz-nongo ahal dugun izan. Hortik aurrera lana bizitzaren plazerra eta mina baitaratzearena. Ezin etsi du poemak truke paper izatearekin, guk ezin dugu sentimentu huts garela sinestuta ibili «banoa, ni ez nago hemen» esaka urak harrotu orduko. Gotzonak harrak gobernatu zale direnak ditugu maite, eternitatea opari aisa emango luketenak desio truk, baina ordain merkeagoz ari zaigu minutuero klaska. Poesiak esperientzia-emozioak polarizatu egiten ditu, etengabe dihardu gauzei xaxaka alde nahiz kontra jar dakizkigun, mintza daitezen; egunerokotasun antzuaz landa ere zabaltzen duelako errealitateak bere errainua. Poema bera bilakatzen da emozio eta esperientzia iturri, irakurlearen gogoan edota poetaren ganbaran lozorroan leudekeenak iradoki ezean. To eta no ekin behar dugu errealitate anitzekin harat honatean. Poema zertzen duena gogoa, intentzioa da, estiloa, musika eta irudiak, eta noiz-nola gertatuak. Ez bait da berdina gurean idatzi edo Maze-ko harresi ostean, ez

bait da berdina gurean irakurri edo hiru-lau etsipen barru. Hunkitzen ditu lanak.

Gainerantzean norberari dagokio izakitako bulkadari eustea, hortik sentiberatasuna alda lezakeelakoa. Betidanik ari da lurralde bizigarri bila, betidanik ari zaigu esaten hilen garela, non harro litekeen esperantza, bi bihotzek batek baino gehiago sufritzen dutela eta banandu ezkero hautsi, betidanik ari zaigu esaten zein txikar eta eder garen isilaren aldamenean. Metatutako oroitzapen bakoitzetik ari du euria. Behinbehinekoak dira gure garaipenak, ez gaude konforme xoratu berri gaituen hitzaren doinuarekin, nekez ezabatzen dira hemen sirenen garraixiak larrutik. Argi hemengo sirenekin. Ohera lotzen gaitu beldurrak maizegi. Giltzurrunetan harriak ditugu gure amodioen korritu esketan datozenak uxatzeko. Eman handiko odola behar dugu. Hitza dezagun bihotzaren giltza, mirarizko hitzak, haurren begirada itzaltzeko hainakoak, hitza lainomugan goiza igan ezinik.

Malmetituta gaude. Berriro kemena eskatzen zaio poesiari, aldioro behin bakarrik. Geroak lur jo egin zuen. Hemen.

Azpeitia, 1991ko udazkena